


2021eko iraunkortasun memoria

Laburpen txostena

ETORKIZUNA HOBETZEKO, IRAUNKORTASUNA ETA BERRIKUNTZA





JOXEAN ALUSTIZA USANDIZAGA
Fagor Taldeko lehendakaria

2021. urtea garrantzitsua izan da Fagor Taldean, gure Batzar Nagusiak Fagor 2030 iraunkortasun estrategia onartu baitu. Fagor 2030 hamarkada oso baterako ibilbide orria da, gure jardun industrial iraunkortasunak ezaugarritutako aro berrira moldatzeko iparrorratza.

Bost ardatz nagusik osatzen dute gure iraunkortasun estrategia: lehiakortasuna, gobernantza kooperatiboa, pertsonak, ingurugiroa eta komunitatea. 2021. urteko memoriatik hasita, urtez urte joango gara bost ardatz horietako bakoitzean izaten ari garen bilakaeraren berri ematen, bai gure bazkide langileek, eta baita gainontzeko interes taldeek ere, egiten ari garena ezagutzeko eta baloratzeko aukera izan dezaten.

Etorkizuna hobetzeko lanean gabiltza, iraunkortasuna eta berrikuntza erdigunean.

Gainontzean, 2021. urtea aurrekoa baino hobe izan da Fagor Taldean. Covid 19-ak eragindako pandemiak ezaugarritutako testuingurura egoki moldatzen jakin dugu eta aurreko urtearekin alderatuta, hobekuntza nabarmena izan dute emaitza ekonomikoek. Azpimarratzekoak dira hornidura katean bizitako tentsioak eta urte bukaera aldera energiak izan duen neurrigabeko garestitzea. Horri guztiari, Ukrainako gatazka batu zaio berriki, eta horrek ziurgabetasunez bete du 2022. urtea.

Edozein kasutan, ilusioz begiratzen diogu etorkizunari, bereizgarri dugun enpresa ulertu eta egiteko eredutik, Garapen Iraunkorrerako Helburuei ekarpen esanguratsua egiteko gogoz.

Fagor Taldea gara

8 kooperatiba	11.003 lanpostu	3 berrikuntza zentro	1.482 M€ fakturatuta
------------------	--------------------	-------------------------	-------------------------

Sektoreak

 Autogintza	 Makina-erreminta
 Etxetresnen osagaiak	 Ostalaritza eta sukaldaritza ekipamendua
 Eguzki energia	 Jabetza industrial

Fagor Taldea, munduan



Balioak

AUTOEXIJENTZIA

Gure kooperatibaren jabeak garenez, epe luzerako konpromisoa hartzen dugu gizarte eta enpresa proiektuarekin. Gure lan egiteko modua etengabe egokitzen dugu, pertsona bakoitzak bere onena emanaz, erronka zein helburuak lortzeko.

ERANTZUKIDETASUNA

Fagorren etorkizunaren arduradun bihurtzen da bazkide bakoitza, kooperatibaren gobernantza demokratikoan parte hartuz eta inplikatur.

ELKARTASUN ARDURATSUA

Gure pertsonetikiko, gainerako kooperatibetikiko eta gizartearekiko arduratsuak gara. Autoexijentziatik eta erantzukidetasunetik lantzen dugu elkartasuna.

Kooperatiba izaera da gure bereizgarri nagusia

01. 

Gobernantza demokratikoa

Fagorreko langileok jabeak ere bagara eta gobernantza organoetan, irabazien banaketan eta kudeaketan parte hartzen dugu, "bazkide bat, bozka bat" printzipioan oinarrituz.

03. 

Elkartasunean oinarritutako lankidetzak

Emitzak Fagor Taldeko kooperatiben artean banatzen ditugu eta enplegu arazoak daudenean pertsonak birkokatzen ditugu.

02. 

Ordainsari elkartasuna

Sortzen dugun aberastasuna modu solidarioan banatzen dugu, ez dadin arrakala handiegirik sortu gehien eta gutxien irabazten dutenen artean.

04. 

Gizarte konpromisoa

Gure irabazien %12 Gizarte Funtsera bideratzen dugu hainbat gizarte ekimen eta proiektu sustatzeko eta diruz laguntzeko.

Fagor Taldearen 5 KONPROMISOAK



01

Gure negozioak eraldatzea, ekonomia digital, deskarbonizatu eta zirkular baten testuinguruan, lehiakorak izan eta enplegua sortzen jarraitzeko.




02

Gure gobernantza eredu demokratikoa hobetzen eta garatzen jarraitzea.



03

Testuinguru egokiak sortzea, gure pertsonen beren onena eman dezaten.



04

Gure karbono aztarna murriztea, klima larrialdiari aurre egiteko.



05

Gizartearen autoeraketa sustatzea, Garapen Iraunkorrerako Helburuak lortzeko palanka gisa.

ETORKIZUNA HOBETZEKO,
**TALDE LEHIAKOR
ETA BERRITZAILEA**

Emitzen banaketa



58 M€
Mundu mailan
irabazitakoa



41 M€
Euskal Herrian
banatutakoa



3.403.220 €
Fagor Taldeko emitzen
birmoldaketa

Kooperatiba bakoitzak bere irabazien %10 bideratzen du mekanismo honetara kooperatiba guztien artean sortutako aberastasunaren banaketa ekitatiboagoa egiteko edota galerak izan dituztenen kasuan, neurri batean konpentsatzeko.


3.086.920 €
MONDRAGONeko elkartasun
mekanismoetara

1.441.200 €
Fagor Taldeko ordainsari
elkartasun fondora

36.487.960 €
Banatzeko geratzen dena



- Bazkide langileei
23.429.080 €
- Erreserba fondoetara
9.418.240 €
- Gizartera
3.640.640 €



2021eko proiektuak

HIREKIN:

Debagoieneko industria enpresetan barne ekintzailatza bultzatzeko eta unibertsitateko ikertzaileak zein ikasleak enpresetako

profesionalekin konektatzeko proiektua babestu dugu. Gure industriaren trantsizio digitala eta iraunkorra bizkortzeko bitarteko izango da.


Enpresa lehiakortasuna lankidetzarekin eta justizia sozialaren bilaketarekin uztartzen jakin duen talde kooperatiboa gara. Enpresa, hain zuzen, bazkide langileen eta, oro har, gizartearen beharrak asetzeko tresna da, eta bere helburua bete dezan, lehiakorra eta errentagarria izan behar da.

ETORKIZUNA HOBETZEKO,
**LURRALDEAN ERROTUTAKO
TALDE DEMOKRATIKOA**

Langileak jabe ere bagara Fagorren, eta gobernu organoetan, irabazien banaketan nahiz kudeaketan parte hartzen dugu, "bazkide bat, bozka bat" printzipioan oinarrituz. Horrek, enpresa proiektuarekiko erantzukidetasunez jokatzera garamatza, eta, epe laburreko banakako interesen gaitetik, guztion ongia eta kooperatibaren epe luzeko egonkortasun ekonomiko-finantzarioa lehenestera.



3.978
bazkide



141
bazkide berri 2021ean

922
emakume

3.056
gizon

36
emakume

105
gizon



214
lagun kooperatibetako
kontseilu errektore eta
sozialetan parte hartzen

58
emakume

156
gizon

2021eko proiektuak

Arau markoaren modernizazioa:

Ordainsari sistemari eragiten dion arau multzoa eguneratu dugu.

Datu pertsonalen babeserako legea:

Azken urteetan egondako lege aldaketek eskatutako eguneratzeak egin dira.


Webgunea eta aldizkaria:

Komunikazio eraginkorrean hobetzeko asmoz, *fagor.eus* webgunea berritu dugu, eta *Bihargin* aldizkaria sortu.


ETORKIZUNA HOBETZEKO,

PERTSONAK ZAINTZEN DITUEN TALDEA

Pertsonok eraikitzen dugu etorkizuna, partekatutako proiektuarekiko erantzukidetasunez, eta belaunaldi berriei guk jasotakoa baino kooperatiba hobea uzteko konpromisoarekin. Pertsonak beraien onena eman dezaten, enpresa kultura aurreratu bat eraikitzeko ari gara lanean, besteak beste, talde lana sustatuko duena, pertsonen osasuna zainduko duena, lana eta familia uztartzea ahalbidetuko duena edo euskaraz lan egiteko aukera emango diguna.



Elkartasuna oinarri
Zenbat gehiago kobratzen dute exekutiboek plantillako batez besteko soldatarekin alderatuta?



2021eko proiektuak

Genero Berdintasun Batzordearen sorrera: Berdintasun Planerako estrategia eta ildo berriak proposatzeko Talde mailako Genero Berdintasun Batzordea sortu dugu.



Telelanaren araua: Telelana lan modalitate gisa aplikatzeko irizpide orokorrak jasotzen dituen araudia onartu dugu.

Abbadia saria: Euskararen normalizazioaren alde egindako lanagatik, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Abbadia saria jaso dugu.

ETORKIZUNA HOBETZEKO,

PLANETAREKIN KONPROMETITUTAKO TALDEA

Larrialdi klimatikoak eta oro har ingurune naturalak bizi duen degradazio azeleratuak gure industria jarduera egokitzea behartzen gaitu, hura bateragarri izan dadin planetaren muga biofisikoekin. Horretarako, industria jarduera deskarbonizatzeko eta gure produktuek beraien bizitza ziklo osoan ingurumenean sortzen duten inpaktua murrizteko lanean ari gara.



2021eko proiektuak


Karbono aztarna kudeatzeko plan korporatiboa: Kooperatiben Net Zero estrategia osatzera datorren plana da. Ditugun emisioak neurtzeko sistema hobetu da 2021ean, eta datozen urteetan emisioak murrizteko eta konpentsatzeko plana lantzea izango da helburu nagusia.

ETORKIZUNA HOBETZEKO,

GARAPEN KOMUNITARIOA BULTZATZEN DUEN TALDEA

Mende berriak erronka berriak dakartzkigu, eta premiazkoa da, gure erakundeek bezalatsu, lurraldeek ere iraunkortasunaren bidean aurrera egitea. Horretarako, komunitatearen autoeratzeara sustatzen dugu eta Garapen Iraunkorrerako Helburuak lortzen laguntzen duten ekimen ezberdinekin jarduten dugu lankidetzan.

Gizarte Funtsaren
banaketa, 2021ean



2021eko proiektuak

Fagor Elkarrekin egitasmoaren baitan, Fagorreko komunitateari begirako hainbat ekimen:

• Harreman Dendarekin elkarlana, bidezko merkataritzako erosketak sustatzeko

• Musukoen birziklapena.

• COVAX kanpaina, UNICEFekin lankidetzan.

• EITB maratonia. Alzheimer gaitzaren ikerketari 15.000 €-ko ekarpena egin genuen.

Informazio gehiago Más información / Additional information

EUSKARA

Iraunkortasun memoria
(PDF)



Online laburpena



CASTELLANO

Memoria de
sostenibilidad (PDF)



Resumen online



Resumen memoria de
sostenibilidad (PDF)



ENGLISH

Online summary





www.fagor.eus

